

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Jauregian Aralarko Aingeruaren bisita izango dute asteazken honetan

Foru Gobernuko kideek irudiari harrera egingo diote jendearentzat irekia izango den ospakizun ospetsuan

Martes, 03 de mayo de 2011

Datorren asteazkenean, maiatzaren 4an, Nafarroako Jauregira egingo du bisita Aralarko Aingeruak, pazko-egunaren osteko astean instituzio, ikastetxe, parrokia eta Iruñeko beste erakunde batzuetatik egiten duen bisita dela-eta.

Nafarroako Gobernuak San Miguelen irudiari egingo dio harrera ospakizun ospetsu batean. Foru Gobernuaren egoitzan hasiko da 11etan eta jendearentzat irekia izango da.

Aurreikusi denaren arabera, ordu horretan, irudia Nafarroako Jauregiko ate nagusira iritsiko da. Mikel Garciandia Goñi Aralarko Santutegiko kapilauak eramango du Nafarroako Ereserkiaren doinua entzuten den bitartean.

Harreraren ostean, prozesio desfilea egingo dute ekitaldi ospetsuetan ohikoa den akonpainamendurekin, hots, arma erregea, mazolariak eta aguaziltxo zuzi-eramaileak. Taldeak eraikineko hainbat gela zeharkatuko ditu, kaperara iritsi arte. Bertan, Santiago Cañardo Ramírez San Nicolás elizako parrokoak eukaristia egingo du.

Erljio ospakizunaren ostean, bertaratuek San Migelen irudiak daraman "lignum crucis" erlikia gurtu eta Jauregiaren ateraino prozesioan lagundu ahal izango diote. Han azken ekitaldia egingo dute, hots, bertaratuak eta Nafarroa osoa bedeinkatuko dira.

Ospakizunean Iruñeko Katedraleko Musika Kaperaren eta Ganbera Orkestraren musika entzungo da, Fernando Sesma Urzaizen zuzendaritzapean.